Usurbilgo Udala

USURBILGO OIARDO KIROLDEGIAN SOROSPEN ETA KIROL ETA JARDUERA FISIKO ZERBITZUEN ESLEIPEN PROZEDURA IREKI BIDEZ ARAUTZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1. XEDEA

Plegu honen xedea Usurbilgo Jarduera fisiko eta kirol sailak bideratzen dituen hurrengo zerbitzuek zein baldintzatan eskaini behar diren zehaztea da. Zerbitzuak honakoak dira:

A. Kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko zerbitzua:
- A.1. Zuzendutako jarduerak
- A.2. Gimnasioa
- A.3. Igeriketa sustapen kanpaina (ISK)
- A.4. Gizarte, kultura eta osasun erakundeekin hitzartutako jarduerak.
- A.5. KOZ edo “Usurbil suspertu” orientazio zerbitzua

B. Sorospen zerbitzua:
Igerilekuko ur salbamendu eta sorospen zerbitzua, kiroldegiaren ordutegian.

C. Koordinazio eta komunikazio zerbitzua:
Zerbitzuak, langileak eta egunerokoak koordinatu eta kudeatuko dituen pertsona.

Aipatutako jarduerez gain, beste batzuk ere sartu ahalko izango dira, jarduera fisiko eta kirol delegatuak onartzen duen urteko edo unean uneko programazioaren arabera.
Era berean, jarduera zehatz bat egiteko eskatutako gutxienekoak betetzen ez badira, bertan behera utzi ahal izango da.
Plegu honetatik kanpo gelditukо dira jarduera fisiko eta kirol sailak bere kabuz edo beste udal sailekin antolatzen dituen ikastaroak, baldin eta ikastaroa emateko jarduera fisiko eta kirol espezialitatearekin zerikusia ez duten titulazioak behar badira, adibidez, fisioterapia, erizaintza...

2.- JARDUERAK EGITEKO LEKUA

Plegu honek gai dituen jarduerak Oiardo udal kiroldegiko instalazioetan egingo dira normalean. Hala ere, egokiagoa bada, eta udal honek enpresa esleipendunari aldez aurretik jakinarazi ondoren, arestian aipaturiko instalazio horietatik kanpo ere egin ahal izango dira jarduerak.

3. BALDINTZA OROKORRAK

Zerbitzuaren enpresa esleipendunak nahitaezkoa izango du:
- Zerbitzuak eskaintzea Usurbilgo udaleko jarduera fisiko eta kirol arloaren ikuskapen teknikoaren eta ezarritako irizpideen arabera; Zentzu horretan, eskainiko diren jarduera fisikoko jarduerak Usurbilgo udalaren eta esleipendunaren artean eskainiko dira. Informazio gisa I. eranskinean 2023/2024 ikasturteko eskaintza jasotzen da.
- Kontratu honen xede diren zerbitzuak ez dira inolaz ere aldatuko, behin-behineko ezgaitasunaren, oporren, baimenen, absentismoaren edo bestelako gorabeheren ondorioz, eta enpresa esleipendunak une oro bermatu behar du zerbitzu egokia.
- Esleipendunak zerbitzua emateko beharrezko diren giza baliabideak jarriko ditu, plegu hauetan zehaztutako gutxieneko titulazio eta euskara maila dutela ziurtatuz. Kontratu berririk egitekotan, kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua

ESKU0a2fa0b1-acc8-46f4-b0ee-eea0b04d4eb2

emango duten pertsonek badituztela zehaztutako gutxieneko titulazio eta euskara-maila. Era berean, enpresa kontratatu eta gero zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna eta gutxieneko titulazioa egiaztatu beharko dute.

- Enpresa esleipendunarentzat ari den langile orok enpresak behar bezala kontratatuta egon behar du.
- Langileak lanak burutzeko beharrezkoak diren babes elementu guztiez hornitzea, indarrean dagoen prebentzio araudiaren arabera.
- Enpresa esleipenduneko langileek nahitaez erabiliko duten janzkerak honako hauek adieraziko ditu:
  garatzen dituen funtzioak edo lanpostua, eta kide den enpresa identifikatzen dutenak (izena, logoa...).
- Esleipendunak ziurtatu beharko du kontratuari atxikitako langileek honako hauek ezagutu, bete eta betearazi beharko dituztela:
  - Oiardo Kiroldegian indarrean dagoen araudia (Instalazioen auto-babeserako planak, instalazioak, etab.).
  - Kirol-instalazioetan lan egiteko oinarrizko jarraibideak eta nahitaez bete eta aplikatu beharreko prozedura garrantzitsuenak.

- Berdintasuna eta euskara irizpideak
  - Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko harreman guztiak, ahozkoak (bilerak, kontsultak...) zein idatzizkoak (fakturak, txostenak) udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz.
  - Hizkuntzen kudeaketa hobetzeko Udalak antola ditzaken ikastaro edo saioetara joan beharko dute enpresa esleipenduneko begirale zein sorosleek. Enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu begiraleek ikastaro edo saio horietan eman ditzaketen orduak eta sor daitezken gastuak.
  - Kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak euskaraz izango dira.
  - Erabiltzaileei emandako zerbitzuak hizkuntza-kalitate baldintzak bete behar ditu.
  - Usurbilgo udalean onartuak dauden berdintasun eta euskara irizpideak ezagutu eta bete beharko ditu.
  - Esleipendunak jartzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta argitaratuko dituen gainerako jakinarazpenetan hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez sexista bermatuko da. Pertsonen irudiak erabiltzerakoan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan islatuko dira. Halaber, ekintza jakinetan megafonia bidez igorritako mezuek ez dute kutsu sexistarik izango.
  - Esleipendunak aurrera eramaten dituen jardueratan emakume eta gizonen parte hartzea orekatua dela bermatuko du. Eta hori horrela ez denean, neurri zuzentzaileak landuko dituzte hori lortze aldera, udaleko jarduera fisiko eta kirol sailarekin batera.
  - Esleipendunak duen lan banaketa orekatua izango da; eta estereotipoak apurtzea bilatuko duela bermatuko du. Eta hori horrela izaten ez denean, neurri zuzentzaileak landuko dituzte hori lortze aldera.
  - Esleipendunak jasotzen dituen datu guztiak (asistentziak, aforoak bai gimnasioan zein igerilekuetan…) generoaren arabera banatuta egongo dira.
  - 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legea eta Usurbilgo Udalaren Berdintasun Plana aintzakotzat hartuta, kontuan izango da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde zer konpromiso maila duen esleipendunak, bai lan taldeari begira, bai egiteko asmoa duten jarduerei begira. Hiru ikuspuntutik egiten da balorazio berezi hau: sexu rolak eta estereotipoak hausten

ESKU0a2fa0b1-acc8-46f4-b0ee-eea0b04d4eb2

laguntzen duten ekimenak; emakumeen ahalduntzea eta autonomia sustatzen duten ekimenak; emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan sentsibilizazio edo prebentzio ekimenak.

- Urtero eta jarduerak hasi baino lehen, programatzen diren ikastaroak emateko metodologia eta programazioa aurkeztu beharko dira Usurbilgo jarduera fisiko eta kirol sailean.
- Enpresak urtero memoria aurkeztu beharko dio kirol teknikariari, burututako lanak kualitatiboki eta kuantitatiboki zehaztuz. Memorian agertzen diren datuak genero eta adinaren arabera klasifikatuak egon beharko dira. Besteak beste, memoriak azaldu beharko du urte osoan eman diren ikastaroen bilakaera, alta-baja fluxuak, egin diren ekitaldi bereziak, intzidentzia eta istripuak (erabiltzaileenak), langileen lan-istripuak eta euren eskuhartzea, langileen inguruko informazio garrantzitsua, langileek egin dituzten formakuntzak, kalitatearen inguruko gaiak, etorkizunera begira zerbitzua hobetzeko proposamenak, euskararen erabilera eta hedapenaren neurketa, berdintasunaren inguruko datuak, eta esleipendunak apropos ikusten duen beste edozein informazio, zerbitzuarekin lotura duena.
- Esleipendunak zerbitzua emateko Segurtasun eta Osasun Plan bat izan behar du. Plana teknikari eskudun batek onetsi behar du. Zerbitzua ematean langile orori gerta lekizkieken ezbeharren erantzukizuna esleipendunarena izango da.
- Esleipendunak Usurbilgo Udaleko kirol sailari beharrezko ikusten dituen hobekuntza, berrikuntza zein bestelako proposamenak luzatu beharko dizkio, zerbitzuaren hobekuntza izanik helburu nagusia.
- Erabiltzaileen segurtasuna zaintzea.
- Esleipendunari atxikitako ondasunen ordena eta zaintza errespetatzea eta errespetaraztea. Horren jarraipena eta ikuskapena Usurbilgo udaleko jarduera fisiko eta kirol sailaren eskumena da eta dagozkion aginduak emango ditu.
- Zerbitzuari atxikitako materiala muntatzea, desmuntatzea, ateratzea eta jasotzea eta apurtutakoak edo egoera onean ez dauden material zein elementuak harreran komunikatzea (materialari zein instalazioari dagokionean -lurrak, argiak, ateak, zikintasuna...-).
- Jarduera fisiko eta kirol teknikariaren bidez, eskolak emateko edo instalazioak libreki erabiltzeko beharrezkoa den diziplina izatea, instalazioetako arauak betez eta betearaziz.
- Udaleko jarduera fisiko eta kirol sailak ezarritako arauak, planak eta irizpideak ezagutzea, horiek betetzea, erabiltzaileei jakinaraztea, irakastea eta betearaztea, baita txapelketetan, kirol-probetan, haur-jolasetan eta jaialdietan ere.
- Enpresa esleipendunak aplikazio informatiko bat izan beharko du, sistema eta kontratuaren xede diren zerbitzuen kudeaketa teknikoa garatzeko beharrezkoak diren elementuak bilduko dituena, besteak beste: eguneroko gorabeheren parteak, mantentze-lanak behar dituztenak jasotzea, ikastaroen parte hartze edo asistentziak jaso... Datu hauek jasotzeko langileek behar dituzten gailuak enpresa esleipendunaren esku izango dira, udalarentzat gainkosturik izan gabe.
- Era berean, aplikazio informatikoa era guztietako gailuetatik erabiltzeko aukera izan beharko dute langileek (*responsive* diseinua). Aplikazio horretara sarbidea izango du Usurbilgo kirol sailak eta horrez gain, administratzeko gaitasuna. Gainera, aplikazio informatikoak Usurbilgo Udalaren euskara irizpideak beteko ditu, hau da, euskaraz izango da.

ESKU0a2fa0b1-acc8-46f4-b0ee-eea0b04d4eb2

Usurbilgo Udala

4. ZERBITZUEN AZALPENA

A. Kirola edo jarduera fisikoa sustatzeko zerbitzua

Esleipendunak Udalak komenigarri iritzitako kirol jarduera fisikoak antolatu eta garatuko ditu, eta kirol hastapeneko, hobekuntzako eta errendimenduko programak, guztientzako jarduera fisiko eta kirol programak, hirugarren adinekoentzako programak, bizi-kalitatea hobetzeko kirol programak, lana eta jarduera fisikoa uztartzeko programak, jarduera fisikoa familian egiteko programak eta egokiak iruditzen zaizkion bestelako programak sustatu eta proposatuko ditu, aurrez onartuak izan ondoren.

A.1 Zuzendutako jarduerak.

Zuzendutako jardueren programak udalerriko biztanle guztiei zuzendutako kirol-jardueren eskaintza ematea du helburu, banakako ezaugarrietara egokituta eta erabiltzaileen tipologiak errespetatuz.
Esleipendunak Udalari proposamena luzatu eta horri komenigarri iritzitako kirol eta jarduera fisikoak antolatu eta garatuko ditu.
Adibide gisa, azken denboraldiko programazio-eredua erantsi da (I. eranskina). Programazio hori eskaeraren arabera aldatu ahal izango da.
Kontratua indarrean dagoen urte bakoitzean denboraldi bakoitzerako programazio osoa proposatuko da. Kirol-jarduerak aldatu egiten dira uztailean eta irailean, eta, beraz, beharrezkoa da urritik ekainera bitarteko egutegia alde batetik, eta aipatutako hilabeteetarako bestea. Egutegi hori enpresaren eta Usurbilgo jarduera fisiko eta kirol sailaren artean egingo da.

A.2. Gimnasioa eta bere aldizkako kontrola.

Gimnasiak erabilera libreko zerbitzu bat eskaini nahi die erabiltzaileei oro har, eta zerbitzu horrek preskripzioa, aholkularitza, monitorizazioa eta jarraipena hartzen ditu bere baitan. Zerbitzuaren helburua izango da gimnasioak erabiltzen dituzten erabiltzaileen portaerak monitorizatzea oinarrizko aholkuak emanez eta zerbitzua behar bezala erabiltzeko orientazioa ematea. Beti ere erabiltzailearen segurtasuna gailenduko da.
Begiralearen lana izango da gimnasioa txukun mantendu eta erabiltzaileei horretan laguntzea.
Express saioak: Jarduera fisikoaren preskripzioaz gain, saio gidatu laburrak ere eman ahalko ditu esleipendunak, fitness gelari zuzenduak: teknika, core, HIIT edo GAP gisako 30 minutuetako saio laburrak, adibidez.

A.3. Igeriketa sustapen kanpaina (ISK).

Igeriketa sustapen kanpaina Lehen Hezkuntzako 1. Eta 4. Maila bitarteko ikastetxeei zuzenduta dago, Gipuzkoako Foru Aldundiko eskola kiroleko programaren baitan.
Eskola orduetan astelehenetik ostiralera egiten diren igeriketa saioak dira. Ordutegi eta egutegia Usurbilen dauden eskola eta ikastolekin ikasturte hasieran adosten da urtero. Orokorrean, 3 edo 4 astez jarraian 45’ eta 60’ arteko saioak izaten dira.
ISKren helburu eta metodologia esleipendunak garatu eta proposatuko du, eta kirol saileko buruaren oniritzia beharko du urtero. Metodologia ludikoa izango da, helburua izanik uretan bizirauteko oinarrizko gaitasunak lortzea (flotazioa, oinarrizko desplazamendua, beldurra galtzea…). Horregatik, jarduera eta ariketa ez konbentzionalak proposatuko ditu esleipendunak: jolasak, talde kohesioa lantzeko jarduerak, talde dinamikak… beti ere ur medioan eta Udalak jarritako baliabideak baliatuz.
Ikasturte bakoitzaren amaieran balorazio txostena egingo du esleipendunak eta kirol sailari helaraziko dio, gutxienez hurrengo informazioa zehaztuz:

ESKU0a2fa0b1-acc8-46f4-b0ee-eea0b04d4eb2

- Ikastetxe bakoitzean egon den talde eta haur kopurua (generoka banatuta)
- Jarraitutako metodologia eta dinamikak
- Haurren garapenaren ebaluazioa
- Balorazio orokorra
- Proposamenak eta berrikuntzak hurrengo ikasturterako

A.4 Gizarte, kultura eta osasun erakundeekin hitzartutako jarduerak.

Helburu nagusia da jarduera fisikoa eta kirol jarduera etengabe egitea sustatzea, kalitate-parametro batzuen arabera.

Gainera, mugimendu fisikoa eta gizarte gaitasunak hobetzea lortzea da helburu, baita bizi-ohitura osasuntsu eta aktiboak hartzen laguntzea ere.
Mota honetako jardueretan parte hartzen dute ikastetxe eta izaera desberdinetako elkarteek.
Bertan egindako ekintzak jarduera fisiko eta kirol saileko buruak onartu beharko ditu.
Gaur egun, aurrera eramaten diren programa batzuk Udal kirol programa gisa ezagutzen dira, eta emakumezkoen, adineko pertsonen, nerabeen, desgaitasuna duten pertsonen eta familia kontziliazio garaian dauden kolektiboei zuzendutako jarduerak dira.
Jarduera hauek ez dituzte besteen baldintza berdinak aktibatu edo ez erabakitzean, besteak beste: gutxieneko ikasle kopurua, tasa publikoa…
Gaur egun indarrean ditugun udal kirol programa batzuk honakoak dira: adinekoen jarduera fisikoa, jarduera fisiko egokitua, haurdunentzat eta erditu ondorengoentzat ikastaroak, Goazen kalera! Programa…

A.5. KOZ edo "Usurbil suspertu" orientazio zerbitzua

Bereziki jarduera fisikorik egiten ez duten herritarrei zuzenduriko zerbitzua da, baina edonor gerturatu daiteke bulegora, bai kirolik praktikatzen ez duten herritarrak eta, baita lesio edo patologiaren bat dutenak, mugitzea edo ohiko kirol jarduerak gustukoak ez dituzten haurrak, edo arrisku egoeran daudenak ere, adibidez.

Herritarra bere kabuz joan daiteke bulegora informazio bila. Bestalde, osasun zentrotik ere bideratu ditzakete pertsonak Kirol Orientazio Zerbitzura; osasun-zentroan jarduera fisikoa egiteko errezetak ematen baitzaizkie erabiltzaileei. Haurren edo gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen kasuan, gizarte ongizate sailetik eta eskoletako orientatzaile eta gurasoen eskutik bideratuko dira teknikariarengana.

Kirol edo jarduera fisikoa sustatzeko zerbitzuetako (A) langileen betebeharrak

- Bazkideentzako eta balizko erabiltzaile guztientzako kirol jarduera fisikoen plana diseinatzea, biztanleriaren sektore guztien beharrei erantzungo diena. Programa koordinatzaileari aurkeztuko dio, hark kirol sailari aurkeztu eta kirol sailak onarpena eman ahal izateko. Kirol sailak beharrezko ikusten dituen aldaketak egin ditzake.
- Erabiltzaile guztiei asebetetze inkestak egitea, gutxienez urtean behin, eta bertako erantzunak txosten modura aurkeztea kirol saileko arduradunari. Erantzunak generoaren arabera banatuta azaldu beharko dira. Kirol sailak eska dezake galdetegi bateratua egiteko zerbitzu desberdinak bateratuz: garbitasuna, mantenimendua… erabiltzaileek galdetegi bakarra erantzun dezaten.
- Ikastaroetako partehartzaileei instalazioen erabilera arauak betearaztea.

ESKU0a2fa0b1-acc8-46f4-b0ee-eea0b04d4eb2

- Ikastaroetako partehartzaileen jarraipena egitea (asistentziaren kontrola eta eguneroko txostenak) eta koordinatzaileari helaraztea.
- Aretoak, material biltegiak eta armairuak txukun mantentzea.
- Erabilgarri dagoen materiala zaintzea, inbentarioa egitea eta materialaren egoeraren berri ematea harreran, bereziki zerbaitek erabiltzaileentzat arriskua suposatu badezake.
- Saioak ematen diren aretoetara edo lekuetara garaiz joatea. Era berean, puntuala izan behar du bukaerak.
- Laneko arroparekin eta era aproposean identifikatuta joatea jardueretara.
- Erabiltzaileei (eta adin txikikoen senideei) kirol-jardueren garapenaren berri ematea.
- Erabiltzaileak klaseetan parte hartzera motibatzea eta animatzea, ariketarekiko atxikimendua eta kirol ohitura osasungarrien sorrera sendotuz. Talde giro egokia sortzea.
- Instalazioaz arduratzen diren pertsonak ohartaraztea harreran abisua emanez, kirol materialean eta/edo instalazioan gertatzen diren kalteez, eta gabeziez.
- Esleitutako enpresari zerbitzua behar bezala garatzeko beharrezkoak diren gorabeherak, balorazioak eta iradokizunak helaraztea kirol sailari, koordinatzailearen bidez.
- Indarrean dagoen osasun araudia eta erabilera araudia ezagutzea, eta horri buruzko protokoloak aplikatzea. Horrez gain, instalazioan indarrean dagoen araudia eta auto babes plana ezagutzea.
- Jarduerak aurrera eramateko behar diren argiterien berri ematea harrerako langileari edota mantentze-lan zerbitzuari, eta energiaren kontsumoa zaintzea, beharrezkoa balitz argiak, berogailua… itzaltzeko eskatuz.
- Ikastaroak dagokion hizkuntzan ematea, eta lehen hitza beti euskaraz izatea.
- Klaseak aurrera eramateko erabiltzen diren materialak, adibidez, musika eta bideoak, berdintasun eta euskara irizpideak bete behar ditu.
- Oro har, zerbitzuaren baitako agindutako funtzioak betetzea.

B. Sorospen zerbitzua: Igerilekuko ur salbamendu eta sorospen zerbitzua, kiroldegiaren ordutegian.

Kiroldegia zabalik dagoen bitartean sorospen zerbitzuak aktiboki, zorrotz eta xehe beteko du erabilera kolektiboko igerilekuen alorrean indarrean dagoen araudia. Horren jarraipena egitea enpresa esleipendunaren ardura da.

Sorosleek Usurbilgo udal kiroldegian ezarrita dagoen auto-babes plana ezagutu eta bertan dagozkien lan guztiak bete beharko dituzte. Horretarako beraien lekuan (igerilekuko botikinean) auto-babes planaren kopia bat izango dute. Oiardo kiroldegiko segurtasun eta larrialdi planean jasotako betebeharretan parte hartuko dute sorosleek, udalak adierazitakoari jarraituz.

Lanlekuan erabiliko duten arropa egokia eta bere eginbeharra egiteko adierazgarria izango da (bainujantzia, kamiseta eta oinetakoak). Ezingo da igerileku eremura kaleko arroparekin sartu eta bertan aldatu. Era berean, soroslearen laneko arropa lanerako eta igerileku eremu barruan bakarrik erabiliko dute: lanaldia amaitzean, berehala aldatu beharko dute arropa.

Sorospen zerbitzua Oiardo udal kiroldegia jendearentzat ireki baino 10 minutu lehenago hasiko da, eta instalazioaren irekiera ordutegi osoan emango da. Irekitzeko ordutegiak I. eranskinean adierazitakoak dira.
Instalazioa ireki aurretik, ur analisiak egin eta egiaztatu behar ditu sorosleak, emaitzetan neurriz kanpoko zerbait balego, igerilekua itxiz. Igerilekua zabalik dagoen ordutegian, soroslea igerilekuan egongo da.

ESKU0a2fa0b1-acc8-46f4-b0ee-eea0b04d4eb2

Usurbilgo Udala

Sorosleek uneoro arretaz eta adi bete beharko dituzte beren funtzioak, ezingo dituztelarik inolaz ere lanekoak ez diren jarduerak egin. Adibidez: liburuak irakurri, mugikorrarekin txateatu, aisialdiko interneteko nabigazioa, sare sozialetan ibiltzea...

Oro har, zerbitzuaren baitan agindutako funtzioak bete beharko dituzte.

Sorospen zerbitzuko langileen betebeharrak

- Salbamendu lanak egiteko beharrezkoak diren jarduera guztiak planifikatzea eta gauzatzea. Igerilekuan eta horri lotutako guneetan beharrezko prebentzio neurriak hartzea eta bertan egon daitezkeen erabiltzaileak zaintzea, baita txapelketetan, kirol-probetan, haur-jolasetan, jaialdietan ere.
- Igerilekuetako erabilera arautzea eta lekuen banaketa antolatzea, eta horren berri ematea.
- Igerilekua jendearentzat irekitzea eta ixtea, zehazten diren ordutegietan, erabiltzaileak irtenaraziz, igerilekua ixteko ezarritako ordutegian erabat hutsik gera dadin.
- Igerilekua ireki aurretik, ur analisien emaitza guztiak egokiak direla ziurtatuko du. Ez badira egokiak, ezingo da edukiontzi hori zabaldu.
- Premia bereziak dituzten erabiltzaileei laguntza ematea edalontzietara sartzeko eta handik irteteko.
- Igerileku bakoitzean zenbat pertsona dauden kontrolatuko du, ezarritako gehieneko pertsona kopurua gainditu ez dadin. Edukiera horiek programa informatikoan jasoko dira, generoaren arabera banatuta.
- Igerilekuko esparruan, kiroldegian gerta daitezkeen gorabehera guztiak artatuko ditu, eta izandako gorabehera, istripu eta salbamendu guztien parteak beteko ditu programa informatikoan.
- Igerilekutik kanpo baina kiroldegi barruan gorabehera larriren bat izanez gero, eta sorosleak igerileku eremutik atera beharko balu, igerilekuan dauden erabiltzaile guztiak irtenarazi beharko ditu harrerako langilearen laguntzarekin.
- Igerilekuan kokaturik dagoen botikinaren materialaren egoera zaintzea, eguneratua izatea eta bere erabileraren ardura izatea. Botika kutxa beteta izateaz arduratuko da eta materiala falta denean koordinatzaileari jakinaraziko dio.
- Lehen laguntzarako ekipamenduek ondo funtzionatzen dutela kontrolatuko du.
- Min hartutakoei lehen laguntza ematea eta osasun laguntza eskatzea, beharrezkoa den kasuetan.
- Igerilekuko instalazioen, materialen eta uraren higieneko, garbitasunezko eta kontserbazioko egoera kontrolatzea.
- Igerilekuetan egin beharreko ur eta aire analisiak igerilekuko erabiltzaileak igerilekura sartu aurretik egitea, igerilekuen egoera egokia dela ziurtatzeko eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko. Horretarako, sorosleak igerilekura ireki baino 10 minutu aurretik sartu beharko dira beraien lanpostura.
- Arestian aipatutako ur eta aire analisien emaitza dagokion partean agertzea. Osasun agintariekin zehaztutako paperezko erregistroetan agertzeaz gain, esleipendunak informazio hori online kontrastatzeko aplikazioan jarri beharko du, denbora errealean kontsultatu ahal izateko moduan.
- Igerilekuaren ura eta ingurua garbi mantentzeko lanetan laguntzea, hondo garbitzaile automatikoa (robota) hala behar denean martxan jarri eta jasotzeaz arduratuz.
- Matxura eta apurketen berri ematea harreran eta mantenu koadernoan idaztea.
- Esparruan dauden argi beharren berri eman beharko dio harrera langileari edota mantentze-lan zerbitzuari, eta behartuta dago energiaren kontsumo iraunkorra zaintzera, eta beharrezkoa balitz, argiak, berogailua eta abar itzaltzeko eska dezake.

ESKU0a2fa0b1-acc8-46f4-b0ee-eea0b04d4eb2

- Zerbitzuaren funtzionamenduan gertaera aipagarriren bat gertatzen denean, afektaturiko zerbitzuaren ardura duen pertsonalari jakinaraziko dio eta, hala behar badu, dagokion intzidenteen partean agerraraziko du. Parte hauek digitalki kudeatu beharko ditu enpresa esleipendunak, Jarduera fisiko eta Kirol Zerbitzuko lantaldeak berehala informazioaren berri izateko aukera ahalbidetzeko, programa informatiko bitartez.

C. Koordinazio eta komunikazio zerbitzua

Esleipendunak koordinazio eta komunikazio lanetarako pertsona bat izendatuko du zerbitzuan. Pertsona horrek astero lanordu jakin batzuk instalaziotik bertatik egin beharko ditu. Koordinatzaile hori izango da Udaleko kirol sailari zerbitzuaren berri emateko bide nagusi eta ofiziala, baita zerbitzua antolatuko duena, langileen gorabeherak kudeatuko dituena, urteko memoria egingo duena...

Langileek koordinatzailearekin landu beharko dituzte euren eskaera eta beharrak.

Koordinatzaileak eta kirol saileko teknikariak jarraipen bilerak egingo dituzte, unean erabakitako maiztasunez. Bilera horietara eskatutako informazio eta dokumentazioa ekarri beharko du koordinatzaileak (ikastaroen gorabeherak, intzidentziak, berrikuntza eta proposamenak...).

5. EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA ETA AURREIKUSTEN DIREN ORDU KOPURUAK

Funtzionamendu egutegi eta ordutegia hau izaten da.

5.1. Egutegia (2. ERANSKINA)

2024an OIARDO kiroldegiko ITXIERAK:

Urtarrila: 1, 6
Maiatza: 1
Uztaila: 2, 31
Abuztua: 15
Abendua: 24, 25, 31

Itxialdi teknikoa: igerilekua itxita uztailaren 30eko 12:00etatik abuztuaren 19ra arte. Gimnasioa eta aretoak irekita.

Hurrengo ekitaldietan, bere momentuan erabakitzen dena.

5.2. Ordutegia (2. ERANSKINA)

2024an:

Neguko ordutegia: Urtarriletik ekainera eta irailetik abendura
Lanegunetan 7:00-22:00
Larunbatetan 9:00-21:30
Igandeetan eta jai egunetan 9:00-13:30

Udako ordutegia: Uztaila eta abuztua

ESKU0a2fa0b1-acc8-46f4-b0ee-eea0b04d4eb2

Lanegunetan 7:00-20:15
Larunbat, igande eta jai egunetan 9:00-13:00

Hurrengo urteetan bere egunean erabakitzen dena.

5.3. Kirol jardueren zerbitzuen aurreikusitako ordu kopurua gutxi gorabehera

2023-2024 ikasturtean eman diren ikastaro orduak: 3.793,5 ordu

- Oiardo udal kiroldegian eskainitako ikastaroen ordu kopurua: 3001,00 ordu + Udal kirol programetarako 636,5 ordu, guztira 3.637,5 ordu.
- KOZ zerbitzua: 156 ordu.
- Igeriketa sustapen kanpaina (ikastetxeak): 105 ordu.

Begirale orduak guztira: 3.793,5 ordu.

3 urtetarako aurreikuspena: 11.380,5 ordu

Ordu horiek 2023-2024 ikasturteko kopuruekin zenbakituak izan dira, eta ikasturte hasieran dauden izen-emateen arabera gutxiago edo gehiago izan ahalko dira.

5.4. Sorospen zerbitzuen aurreikusitako ordu kopurua gutxi gorabehera

Urtean emango diren sorosle orduak: 4.391,25 ordu

Ordu horiek 2024 Oiardo udal kiroldegiak duen egutegiaren araberakoak dira, eta hurrengo urteetan ordu kopuruak jarduera fisiko eta kirol saileko buruak onartzen duen egutegiaren araberakoa izango da.

Sorosleak kiroldegia ireki baino 10 minutu lehenago sartuko dira lanera, igerilekuan aurrez egin beharreko zereginak egitera (laginak, neurketak...), eta igerilekua kiroldegia itxi baino 15 minutu lehenago ixten den arren, itxiera zereginak egiten geldituko da soroslea kiroldegiaren itxiera ordura arte (robota uretaratzen, botikina txukuntzen, inbentarioak gainbegiratzen…).

5.5. Koordinazio eta komunikazio zerbitzuen aurreikusitako ordu kopurua gutxi gorabehera

Urtean 240 ordu inguru izango dira.

Koordinatzailea astean behin gutxienez Oiardora joango da, bertatik lan eginez egunerokotasuneko gertaeren berri izateko eta errealitateari ahalik eta gehien hurbiltzeko.

Koordinatzaileak lanerako behar dituen baliabide informatiko eta gainerakoak enpresaren kargura izango dira.

6. GIZA TALDEA

Enpresa esleipendunak langileak jarri beharko ditu kontratu honen xede den zerbitzua betetzeko beharrezkoak kopuruan eta kualifikazioan.

- Subrogazio kasuetan, indarrean dagoen hitzarmena aplikatuko da. Horrez gain, plegu hauetan dauden zerbitzuak aurrera eramateko beharrezko baldintzak, 8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa,

ESKU0a2fa0b1-acc8-46f4-b0ee-eea0b04d4eb2

Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa bete beharko dute, baita 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena ere.

- Bestalde, langile hasi berriek edo langile subrogatuak ordezten dituztenek honako baldintza hauek egiaztatu beharko dituzte:

Uretako salbamendu eta sorospen-zerbitzuan:

- Sorosleek B2 euskara-maila egiaztatu beharko dute.
- 8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoan egokitzen zaizkien titulazio akademikoak.

Kirol eta jarduera fisikoa sustatzeko zerbitzuan:

- Jarduera fisikoak emateko zerbitzuko langileek B2 euskara maila egiaztatu beharko dute.
- 8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoan egokitzen zaizkien titulazio akademikoak.

- KOZ edo “Usurbil Suspertu” zerbitzuko orientatzaileak, Jarduera fisikoa eta kirolaren zientzietan graduatua (edo baliokidea) izan beharko du, eta C1 euskara maila egiaztatu beharko du.

Udala eta enpresa esleituaren arteko harremanetan:

- Koordinazio lanetan arituko diren langileek C1 euskara-maila egiaztatu beharko dute.
- 8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoan egokitzen zaizkien titulazio akademikoak.

– Adingabeekin ohiko harremana duten lanbideetan sartzeko eta jarduteko baldintza izango da, bai dedikazio profesionalean bai boluntariotza-araubidean, lanbideok adingabeekiko ohiko harremana izatea dakartenean, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren VIII. tituluan tipifikatutako sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako edozein deliturengatik epai irmoz kondenatua ez izana, bai eta Zigor Kodearen VII bis tituluan tipifikatutako gizakien salerosketaren edozein deliturengatik ere. Horretarako, lanbide horietan sartu nahi duenak egoera hori egiaztatu beharko du Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztuta, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan aurreikusitako baldintzetan.

– Debekatuta dago enpresek eta erakundeek lana ematea, lege honetan araututako eta adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten jardueretan, Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Nagusian aurrekariak dituztenei. Debeku hori boluntarioei ere aplikatzen zaie.

ESKU0a2fa0b1-acc8-46f4-b0ee-eea0b04d4eb2

Usurbilgo Udala

1. ERANSKINA: 2023/2024 KIROL ESKAINTZA

ARETO JARDUERAK / Actividades de sala
HELDUAK/ Adultos

IKASTAROAK	EGUNAK	ORDUTEGIA	PREZIOAK
SPINING	A1-A3	20:30-21:20	235,99€
	A2-O1	15:00-15:50	
	A2-O1	20:15-21:05	
	A1-A3	07:10-08:00	
PILATES OSASUNA	A1-A3	09:15-10:05	294,50€
PILATES HASTAPENA	A1-A3	18:15-19:05	294,50€
PILATES HOBEKUNTZA	A1-A3	19:15-20:05	294,50€
	A2-O1	09:00-09:50	
3. ADINA	A1-A3	10:15-11:05	64,17€
	A2-O1	10:15-11:05	
MANTENU GIMNASIA	A1-A3-O2*	09:00-09:50	212,37€
	A2-O1-O2*	09:00-09:50	
ZUNBA	A1-A3	19:00-19:50	141,57€
	A1-A3	10:15-11:05	
HIT	A1-A3	20:15-21:05	235,99€
HIPOPILATES	A2-O1	16:30-17:20	151,76€
HIPOPRESIBOAK	A2-O1	16:00-16:30	75,88€
KONBINATUA	A2-O1	19:15-20:05	235,99€
	A2-O1	17:45-18:35	
		18:30-19:20	

A1: ASTELEHENA. A2: ASTEARTEA .A3: ASTEAZKENA. O1: OSTEGUNA.
O2: OSTIRALA. L: LARUNBATA. I: IGANDEA

ARETO JARDUERAK / Actividades de sala
HELDUAK/ Adultos

IKASTAROAK	EGUNAK	ORDUTEGIA	PREZIOAK
YOGA	A2	09:00-10:30	176,97€
	A1	19:00-20:30	
JARDUERA FISIKO EGOKITUA	A2-O1	18:30-19:20	92,25€
ESKALADA	A3	20:00-20:50	72,25€ /3 hileko
TOTAL TRAINING	A1-A3	08:00-08:50	235,99€
ERDITZE ONDORENGO IKASTAROA	A2-O1	11:15-12:05	98,16€ /3 hileko

HAURRAK ETA GAZTEAK/ Niños y jóvenes

IKASTAROAK	EGUNAK	ORDUTEGIA	PREZIOAK
ZUNBA GAZTE (10-16 urte)	O2	16:45-17:35	70,78€
ZUNBA TXIKI (6-9 urte)	O2	17:45-18:35	70,78€
ESKALADA (6-9 urte)	A3	17:00-17:50	72,75€ / 3 hileko
ESKALADA (10-14 urte)	A3	18:00-18:50	72,75€ / 3 hileko
ESKALADA (15-18 urte)	A3	19:00-19:50	72,75€ / 3 hileko
KONBINATUA	IGERIKETA A2 SPINING O1	18:15-19:05	235,99€

A1: ASTELEHENA. A2: ASTEARTEA .A3: ASTEAZKENA. O1: OSTEGUNA.
O2: OSTIRALA. L: LARUNBATA. I: IGANDEA

ESKU0a2fa0b1-acc8-46f4-b0ee-eea0b04d4eb2

Usurbilgo Udala

UR JARDUERAK / Actividades de agua

HELDUAK/ Adultos

IKASTAROAK	EGUNAK	ORDUTEGIA	PREZIOAK
HAURDUNAK (Pilates + ur jarduerak)	A2-O1	11:00-11:50	32,58€ / hilabetez
AQUAGYM	A1-A3	08:30-09:20	294,50€
	A2-O1	09:10-10:00	
	A2-O1	19:30-20:20	
HASTAPENA	A1-A3	07:30-08:20	32,65€ / hilabetez
	A2-O1	19:30-20:20	
HOBEKUNTZA	A2-O1	07:00-07:50	78,63€ / 3 hilabetez
	A1-A3	20:00-20:50	
Errendimendua	A1-A3	19:00-19:50	235,99€
Konbinatua (Aquagym + igeriketa)	A2-O1	08:10-09:00	294,50€

IGERIKETA TALDEAK/ Grupos de natación

IKASTAROAK	EGUNAK	ORDUTEGIA	PREZIOAK
HAURTXOAK (0-1 bitarte)	L	10:30-11:15	73,61€ / 3 hileko
	I	11:15-12:00	
HAURTXOAK (2-3 bitarte)	L	11:15-12:00	73,61€ / 3 hileko
	I	10:30-11:15	
HH3	A3	17:00-17:45	220.86€ (1 egun)
HH4	A1-A2-A3-O1	17:00-17:45	220.86€ (1 egun)
HH5	A1-A2-A3-O1	18:15-19:00	196.58€ (1 egun)
LH1	A1-A2-A3-O1	17:00-17:45	147,5€ (1 egun) / 294,5€ (bi egun)
LH2	A1-A2-A3-O1	17:00-17:45	147,5€ (1 egun) / 294,5€ (bi egun)
LH3	A1-A2-A3-O1	17:30-18:15	118€ (1 egun) / 235,99€ (bi egun)
LH4	A1-A2-A3-O1	17:30-18:30	118€ (1 egun) / 235,99€ (bi egun)
IGERIKETA GAZTE	A1-A3	18:00-18:50	235,99€

A1: ASTELEHENA. A2: ASTEARTEA .A3: ASTEAZKENA. O1: OSTEGUNA.
O2: OSTIRALA. L: LARUNBATA. I: IGANDEA

*HH3 HH4 eta HH5eko haurrak astean SAIO 1 izango dute. Begiraleen laguntzarekin aldatuko dira, ALDAGELA FAMILIARREAN.

**LH1 eta LH2 haurrak astean SAIO 1 edo 2 SAIO egiteko aukera izango dute. Bakarrik aldatu beharko dira, IGERILEKUKO ALDAGELA OROKORRETAN.

***LH3 eta LH4tik aurrerako haurrek, astean SAIO 1 edo 2 SAIO egiteko aukera izango dute.

ESKU0a2fa0b1-acc8-46f4-b0ee-eea0b04d4eb2

Usurbilgo Udala

2. ERANSKINA:

OIARDO UDAL KIROLDEGIKO 2024 URTEKO EGUTEGI ETA ORDUTEGIA:

Usurbilgo Udala

Oiardo Kiroldegia-2024ko EGUTEGIA

Urtarrila						
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Otsaila						
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29			

Martxoa						
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

Apirila						
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

Maiatza						
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Ekaina						
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

Uztaila						
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Abuztua						
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Iraila						
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

Urria						
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

Azaroa						
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

Abendua						
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

2024ko ORDUTEGIAK

Urtarrila-Ekaina eta Iraila-Abendua:

Lanegunetan	Larunbatetan	Igandetan eta Jai Egunetan
7:00-22:00	**9:00-21:30**	**9:00-13:30**
(Igerilekua: 21:45)	(Igerilekua: 21:15)	(Igerilekua:13:15)

******Udako Orgutegia (Uztaila eta Abuztua):***

Lanegunetan	Larunbatetan	Igandetan eta Jai Egunetan
7:00-20:15	**9:00-13:00**	**9:00-13:00**
(Igerilekua: 20:00)	(Igerilekua: 12:45)	(Igerilekua:12:45)

- Lanegunak
- Larunbatak
- Igandeak eta Jai egunak
- Itxita
- Udako Ordutegia: Lanegunak
- Udako Ordutegia: Larunbatetan
- Udako Ordutegia: Igandeak eta Jai egunak
- Igerilekuak itxita (Uztailaren 30ean 12tatik aurrera)

ESKU0a2fa0b1-acc8-46f4-b0ee-eea0b04d4eb2

Usurbilgo Udala

EKS | CSV: **ESKU0a2fa0b1-acc8-46f4-b0ee-eea0b04d4eb2**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310